ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-deiturak:					
IFZa/AIZa:					
Helbidea:					
Posta-kodea:		Herria/Udalerria:			
Probintzia:					
Helbide elektronikoa:			Telefonoa:		

BERE IZENEAN ☑ HONAKO HAU ORDEZKATUZ ☑

Lehen deitura/Sozietate-izena:					
Bigarren deitura:			Izena:		
IFZa:					
Helbidea:					
Posta-kodea:		Herria/Udalerria:			
Helbide elektronikoa:			Telefonoa:		

Honako adierazpen hauek egiten ditut, hirugarren sektoreko eraikinetan energia-efizientziako jarduketak egiteko laguntzen deialdia dela-eta (Hirugarren sektoreko Eraikinen Birgaitze Energetikorako Programa) aurkeztu dudan eskaerari dagokionez:

a) Nire jarduera ekonomikoak ez dezala kalte nabarmenik eragin Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluan adierazitako ingurumen-helburuetan —erregelamendu hori inbertsio jasangarriak errazteko esparrua ezartzeari buruzkoa da, eta Taxonomiari buruzko 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzen du—.

b) Inolako administrazio-zehapen irmorik edo kondena-epai irmorik betetzen ez egotea sexu- edo genero-diskriminaziotzat hartutako lan-praktikak egiteagatik edo onartzeagatik, eta, kasua bada, ez egotea arrazoi horiek direla-eta ezarritako epai edo zehapen bat betetzeko zain.

c) Enpresa krisian ez egotea, Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 18. definizioan ezarritakoaren arabera. Salbuespena dira 2019ko abenduaren 31n krisian ez zeudenak baina 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitarteko aldian krisian dauden enpresak izatera pasatu direnak (Kategorien araberako Salbuespenari buruzko Erregelamendu Orokorraren 1.4.c eta 2.18 artikuluak).

Halaber, deialditik kanpo gelditu dira aipaturiko erregelamenduaren 1. artikuluan ezarritako sektore eta baldintzetan diharduten entitateak.

d) Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jo ondoren, hura berreskuratzeko agindu bat, oraindik bete gabea, ezarria ez izatea (Kategorien araberako Salbuespenari buruzko Erregelamendu Orokorraren 1.4.a artikulua).

e) Irailaren 23ko 10/2025 Errege Lege Dekretuak debekatutako jarduerak garatzen ez ibiltzea. Errege lege-dekretu horren bidez, premiazko neurriak hartu ziren Gazako genozidioaren aurka eta palestinarren alde.

f) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13.2 artikuluan onuradun izateko ezarritako debeku-kasuetan ez egotea.

g) Emakume eta gizonen berdintasunerako plan bat izatea, Nafarroako hitzarmen kolektiboen, lan-akordio kolektiboen eta berdintasun-planen erregistroan inskribatua, legeak SINAIko eragileei eta 50 langiletik gora dituzten enpresei eskatzen dienarekin bat. Gainerako enpresek, aipatu plana modu boluntarioan egin badute salbu, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko protokolo bat gordailutu behar izanen dute aipatu erregistroan.

..... (e)n,..... (e)ko..... aren..... (e)(a)n
(Eskatzailearen edo haren ordezkariaren sinadura)